

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Sociedad Deportiva Municipal de Portugalete, S.A. (Demuporsa)****Arautegia, diru-laguntza sozialak emateko, kirol instalazioak 2017ko ura abonamendudun gisara erabiltzeko.**

Portugaleteko Udalaren Kirol Saileko Administrazio Kontseiluak 2017ko maiatzaren 11ko bilkuran, diru-laguntzen deialdia onetsi du, diru-laguntza sozialak ematea arautzeko, kirol-instalazioak 2017ko Ura Abonamendudun gisara erabiltzeko.

Diru-laguntza hauen emateak eta ematen duen pertsonaren eta onuradun entitatearen arteko harreman juridikoak oinarri-arau hauei jarraituko diete. Oinarri-arauotan ez datorrenari dagokionez, azaroaren 17ko 38/2003ko Diru-laguntzen Lege Orokorra bete da. Araudi hau Udalaren iragarki-taulan [www.portugalete.org](http://www.portugalete.org) webgunean egongo da ikusgai.

**ARAUTEGIA, DIRU-LAGUNTZA SOZIALAK EMATEKO, KIROL INSTALAZIOAK 2017KO URA ABONAMENDUDUN GISARA ERABILTZEKO****1. Xedea**

Diru-laguntza sozial hauek helburu dute diru-gabeziak dituztenek kirolean egitea benetan ahalbidetzea, kirolak herritarren bizi-kalitatea hobetzen laguntzen die eta euren garapen pertsonal integralarentzat ere mesedegarri delakoan.

**2. Hartzaileak**

Portugaleten erroldaturik dauden guztiak baldin eta 2017ko Ura abonamenduaren urteko tarifaren kostua ordaintzeko bitarteko nahikorik ez badute.

**3. Betekizunak**

Onuradunek betekizunok bete behar dituzte:

- Lehenik eta behin, Ura abonamenduaren urteko tarifa ordainduta izan behar dute. Halaber, Pando Aisiako instalazioetan edo Txurruka kaiko udal igerilekuetan diru-laguntzarako eskaera aurkeztu behar izan dute.
- Bitarteko gutxi duten portugaletetarrentzako diru-laguntzen onuradun izan behar dute, Portugaleteko Udalaren Gizarte Ongizate Sailak 2017an argitaratzen dituen oinarri-arauekin bat etorritik.

**4. Diru-laguntzaren zenbatekoa**

Diru-laguntza Ura abonamenduaren urteko tarifaren %50a izango da.

**5. Ebazpenaren prozedura**

Portugaleteko Udalaren Gobernu Batzordeak arautegi honen 3. atalak zehazturiko diru-laguntzen ebazpena egin ondoren, honako prozedura honi ekingo zaio:

- Eskatzaileak, emakida onetsiz gero, Ura abonamenduaren %50eko beherapena izango du.
- Eskatzaileak ez du hobaririk izango baldin eta emakida ezesten bada.

**6. Aurrekontuko kreditua**

Finantzaketa egingo da gehienez 10.000 euro izango duen aurrekontu kreditu baten kargura, eskaerak egin eta ebatzi ahala, kreditua agortu arte.



## 7. **Eskaera-orriak aurkezteko epea**

Eskaera-orriak aurkezteko epea, oinarri-arauok Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunetik aurrerakoa izango da, kreditu erabilgarria agortu arte edo besterik adierazi ezean, 2017ko abenduaren 30era arte.

Portugaleten, 2017ko maiatzaren 12an.—Demuporsako Presidentea, Iker Villalba Batalla

**I. ERANSKINA  
DIRU-LAGUNTZAREN ESKAERA**

Eskatzailea		
Izen-abizenak	NAN	
Bezero zenbakia		
Helbidea (jakinarazpenetarako)		
Udalerrria	Posta kodea	E-mail
Telefonoa		

Diru-Laguntza
Lerroa: Kirol instalazioak 2017ko Ura abonamendudun gisara erabiltzeko diru laguntza sozialak

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoak dioena bete dadin, jakinarazten diegu eskatzaileei, agiritan emandako datuak arau hauetako diru-laguntzak emateko prozeduran eta Demuporsak kudeatzen duen Udalaren Kirol Sailaren beste jarduera batzuetan erabili ahal izango direla.

Portugaleten, .....ko .....ren ... (e)(a)n.

Sinadura